




Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura



Vizcaya Bridge
Inscrito en la Lista del Patrimonio Mundial en 2006



Bizkaia Zubia

getxo  turismo

www.getxo.net/turismo



- Errepidea
- Autobidea
- Metroa
- Informazio turistikoa
- Informazio turistikoa (Aste Santutik urria)



Getxo da zure jomuga

Getxok eskuak zabalik hartzen zaitu: turismoa, kultura, aisia... Esperientzia ahaztezina. Labarrak, kostaldea eta hondartzak inguruan dituela, egun batzuk egoteko, atsedean hartzeko eta deskonektatzeko leku aproposa da. Harritu zaitetz herriko monumentu-ondare aberatsarekin eta bertako etheen arkitektura-edertasunarekin. Getxo kalitatezko jomuga da, eta hori ostatu abegitsuei, merkataritza-eskaintza zabalari eta jatetxeetako eta pintxoien tarbarnetako gastronomia gozoiari esker ikusiko duzu. Getxo kultura, kirola, abentura... da.

Getxo da zure jomuga.



Bizkaia Zubia

Getxo monumentala



Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura



Vizcaya Bridge

Inscrito en la Lista del Patrimonio Mundial en 2006



Getxok monumentu-ondare aberatsa du. **Bizkaia Zubia** (Gizadiaren Ondarea, UNESCO 2006) Eiffel dorrearen garaikidea da eta biek antz handia dute. Hemengoa munduko zubi transbordadorerik zaharrena da. **Portu Zaharra** xarma handiko lekua da eta bertan lagun-taldeek trago eta pintxo batzuk hartzeko bat egiten dute. **Etxe Handien pasealekuan** hainbat arkitektura-estilotako etxeak eta jauregitxoak aurkituko dituzu eta horien bidez Getxoko urrezko urteak gogora ekarriko dituzu. Bisitan Itsasoan galdutakoen Salbamendu Etxea (herrian **“Itsasoan galdutakoen Salbamendu Etxea”**), **Galea gotorlekua** eta **Aixerrota** ikusiko dituzu, azken hori udalerriko ikuspeirik onena duen kokalekuan.



Portu Zaharra





Etxe Handien pasealekua - Areetako kaia





La Galea

Getxo naturala



Hiriko **hondartzak** eta hondartza basatiak, **labar** ikusgarriak eta **kostaldea** inguratzen duten ibilbideak dira Getxoren pizgarri natural nagusiak. **Abra-Getxo Kirol Portuan** kokatutako **Getxo Aquariumek** itsasoko sekretuak aurkitzeko aukera paregabea eskaintzen dizu, forma apetatsuak dituzten koralezko arrezifeak, arrain tropikalak eta edertasunari eta aniztasunari erreparatuz oso harrigarria den mundua. Hurbildu zaitetz **Gorrondatxe-Azkorri hondartzara harkaitzen geruzak** ikusteko, aro geologiko lutetiarreko munduko erreferentzia moduan hautatu dituztenak. Leku horretan **“urrezko iltzea”** dago. Ikur horrekin bereizten dira estratigrafiaren munduan aparteko berezitasunak eta ezaugarriak dituzten lekuak.



Arrigunaga hondartza. Galeako labarrak






Getxo kalitatea da



Getxok turismo aparta eta kalitatezkoa eskaintzen dizu: **ostatu** erosoak turismo-erakargarritasun handiko lekuetatik hurbil eta euskal sukaldaritzaz gozatzeko **jatetxeen** eta **pintxoen tabernen** eskaintza zabala. Eta gutziaren bat baduzu, bisitatu **merkataritza-guneak**, eta bertan diseinuko moda, bertako produktuak eta bisitaren oroitzapen ona izateko behar duzun guztia aurkituko duzu.

Bilatu ikurra  eta gozatu kalitatezko turismo-esperientziaz.



GetxoPhoto



Nazioarteko Blues Jaialdia



Nazioarteko Folk Jaialdia

Getxo kulturala



Nazioarteko Jazzaldia

Getxok harritu egingo ditu, hainbat estilo biltzen dituztenak, hala nola **Jazza**, **Bluesa** eta **Folka**. **GetxoPhotok**, formatu, euskarri eta espazioen erabilera originalari esker, argazkigintzari dimentsio berria gehitzen dio. Itsasoa eta kostaldea agertoki moduan dituen jardueren sorta zabalak hitzordua du urtero **Getxo Sea Week** izenekoan. **GetxoArte**, **Komiki** eta **Manga Azoka** edo **dantza** eta **antzerki** lehiaketak dira Getxok eskaintzen dituen beste alternatiba batzuk.



Getxo kirolzalea



Getxoko inguru natural pribilegiatua zoragarria da kirola eta abentura gustuko dituztenentzat. Getxo betidanik itsasoari lotuta egon da, eta horri esker, ureko kirolak egiteko aparteko jomuga da. Urte osoan **belako** txapelketa eta estropada ugari egiten dira. **Surfa** gogoko dutenek Bizkaiko itsasoaren olatuez gozatuko dute, labar izugarrien begiradapean. Getxo leku zoragarria da bidegorrietatik **bizikletan** ibiltzeko edo **skate** pistetan aritzeko. **Urpekaritza** eta **hipika** dira natura gustuko dutenentzako beste alternatibak.

Getxoko Turismo Bulegoa

Ereaga Hondartza z.g. 48992 GETXO

☎ L1 Neguri ☎ L1 Algorta

infoturismo@getxo.net

☎ 94 491 08 00

Bizkaia Zubia TIG

☎ L1 Areeta

infoturismo.mobil@getxo.net

☎ 615 75 62 90

Aste Santutik urrira




Egunero irekita.

Doako zerbitzua.

www.getxo.net/turismo



ZERBITZUEN GUTUNA

- **Erreserba-zentraleko Zerbitzua** - Erreserba baliabide tradizionalaz gain, erreserbak “on line” egiteko aukera jartzen dugu zure esku. Hain zuzen ere, honako PRODUKTU TURISTIKO hauek erreserbatzeko. Bidaia-agentziaren bidez ere erreserbatu dezakezu.
- **Produktu turistikoak:**
 - **“Ihesaldi sustapenak”:** Hartu ostatu Getxon eta gozatu urte osoan egoten diren eskaintza bereziaz.
 - **Itsasoratzea:** Urte osoan zehar ere egin daitezke dauden ibilbideak: bi ordukoak, egun erdikoak, egun batekoak eta belaontzi arina ikastaroak.
 - **Getxo Pass:** Getxon Gozatu eta baliatu dohan turismo txartelak ematen dizkizun abantailak eta opariak.
- **Neurrira egindako programak:** Neurriera egindako programak talde eta enpresentzat: ostatuetakoa erreserbak, jatetxetakoak, bizikleten alokairua, itsasoko txangoak, bisitaldi gidatuak, eta abar.
- **Turismo-informazioko zerbitzua:** leku interesgarriak, garraio publikoa, ostatu hartzea, kultura eta abar.
- **Bidaiteka zerbitzua:** ESPAINIARI eta ATZERRIKO HERRIALDEEI buruzko turismo-informazioa.
- **Oparien eta oroigarrien salmenta.**
- **Tokiko turismo-garapenerako laguntza teknikoa.**
- **Bisita turistikoak:**
 - **Bisita Autogidatua. “Etxe handien zeharretako pasealekua”.** Doan.
 - **Bisita Gidatuak Bizkaia Zubia.** 3€tik gora
 - **Bisita Antzeztuak Bizkaia Zubia - Portu Zaharra.** 6€tik gora
 -  **Getxo Aquarium Bisitaldi Turistikoa.** 3€tik gora
 -  **Bizkaia Zubia Bisitaldi Turistikoa.** 5€tik gora
 -  **“Getxo Taxi Tour” Bisitaldi Turistikoa.** 15€tik gora / taxi



Getxo
bizi ezazu
Turismoa

EUSKADI

Bizkaia

Bizkaia Euskal Kostaldea
Gostia Vasca



Erantsi liburuxka